



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2017ICGO0003

Eguna: 2017/04/26

Ordua: 09:30 – 10:18

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- | | |
|--------------------------------|---------------------------|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martín Arregui Sagües | EAJ-PNV (17. aztergaiari) |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EBILDU |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

Bertaratu ez direnak

-

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaría.

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2017ko martxoaren 15eko aktaren onarpena.	1.	Aprobación del acta de 15 de marzo de 2017.
Berdintasun arloko 2017ko dirulaguntzen oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea.	2.	Aprobación bases subvenciones 2017 área de igualdad y convocatoria pública.
Mundarro elkartearekin, urteko kirol jarduera aurrera eramateko lankidetzaren hitzarmena onartzea.	3.	Aprobación convenio de colaboración con Mundarro en apoyo a la actividad deportiva anual.
UEU 2.6 "Pagoaga" eremuko Plan Berezia: berraztertze errekurtsoari erantzutea.	4.	Plan Especial UEU 2.6 "Pagoaga": contestación al recurso de reposición.
HEA 16 "Txalaka-Oialume"ko Plan Berezia: hasierako onarpena.	5.	Plan Especial AIU 16 "Txalaka-Oialume": aprobación inicial.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

“Agui” 8.2. HJUko Birpartzelazio proiektua: behin betiko onarpena.	6.	Proyecto de reparcelación UEU 8.2 “Agui”: aprobación definitiva.
“Agui” 8.2 HJUko Urbanizazio proiektua: hasierako onarpena	7.	Proyecto de urbanización UEU 8.2 “Agui”: aprobación inicial.
Arrobitxuloko harrobia egonkortzeko bigarren faseko obrak: kontratazio espedientea onartzea.	8.	Obra segunda fase de la estabilización de la cantera de Arrobitxulo: aprobación del expediente de contratación.
Kultura, euskara eta jaiak arloko dirulaguntzen oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea.	9.	Aprobación bases subvenciones área cultura, euskara y fiestas, y hacer la convocatoria pública.
Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: Astigar.	10.	Aprobación convenio colaboración: Astigar.
Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: Aiztondo abesbatza.	11.	Aprobación convenio colaboración: Aiztondo abesbatza.
Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: Dobera.	12.	Aprobación convenio colaboración: Dobera.
Euskarako egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko 2017ko plana.	13.	Plan 2017 Buruntzaldea: desarrollo de proyectos en colaboración.
Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: Musika Eskola.	14.	Aprobación convenio colaboración: Musika eskola.
Turismoa sustatzeko lankidetzeta-hitzarmena: Behemendi.	15.	Convenio colaboración para promover el turismo: Behemendi.
Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: AEK.	16.	Aprobación convenio colaboración: AEK.
Informazio, galdera eta eskariak.	17.	Información, ruegos y preguntas.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2017ko martxoaren 15eko aktaren onarpena.

Mikel zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako. Alkateak eta Nerea eta Andoni zinegotziek alde bozkatu dute. Beraz, akta bere horretan onartu da.

2.- Berdintasun arloko 2017ko dirulaguntzen oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Alkateak berdintasun eta mugikortasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Berdintasun arloan 2017. urtean garatuko diren jarduketa, proiektu eta programak laguntzeko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren deialdi publikoa egitea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

3.- Mundarro elkartearekin, urteko kirol jarduera aurrera eramateko lankidetz hitzarmena onartzea.

Alkateak kirolak, gardentasuna eta partehartze batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Astigarragako Mundarro Elkartearekin, honen urteko kirol jarduera aurrera eramaten laguntzeko lankidetz hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Nerea zinegotziak adierazi du batzordean esan bezala, aurreko laguntzaren zenbatekoa handitu egin dela, berdintasuna dela-eta, elkarteak

1.- Aprobación del acta de 15 de marzo de 2017.

El concejal Mikel se ha abstenido dado que no estuvo presente en la anterior reunión. La alcaldesa, la concejal Nerea y el concejal Andoni han votado a favor, por lo que se ha aprobado el acta.

2.- Aprobación bases subvenciones 2017 área de igualdad y convocatoria pública.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de igualdad y movilidad:

Primero.- Aprobar las bases de ayudas económicas para el desarrollo de actuaciones, proyectos y programas dentro del ámbito de igualdad para el año 2017.

Segundo.- Realizar la convocatoria pública de las ayudas económicas.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.

3.- Aprobación convenio de colaboración con Mundarro en apoyo a la actividad deportiva.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con Astigarragako Mundarro elkartea, en apoyo a la actividad deportiva anual de ésta.

Segundo.- Autorizar a la Alcaldesa para la firma de todos los documentos necesarios.

La concejala Nerea señala, que tal y como se comentó en la comisión, este año se ha aumentado el importe de la subvención, dado que en aras a la igualdad, se ha creado un



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

nesken talde bat eratu duelako.

equipo de chicas.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

4.- GUEU 2.6 “Pagoaga” eremuko Plan Berezia: berraztertze errekurtsoari erantzutea.

Alkateak hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

1. *Berraztertze Errekurtsoa zati batean onartzea, hau da:*

- HJU 2.6 'Pagoaga' eremuaren mugaketa HAPOn jasota dagoen bezala mantentzea. Ondorioz puntu honetan errekurtsoa onartzea.
- Besteetan, Berraztertze Errekurtsoa baztertzea udal arkitektoak txosten teknikoan aipaturiko proposamenak betetzera baldintzatuz.

2. *Eragileari aipa, izapide berri batetarako H.E.A. 2.6 ko 'Pagoaga' eremuan Plan Berezia eguneratu eta aldatu bat aurkeztu beharra.*

4.- Plan Especial UEU 2.6 “Pagoaga”: contestación al recurso de reposición.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda y medio ambiente:

1. *Aceptar parcialmente el recurso de reposición interpuesto, en los siguientes términos:*

- *Mantener la actual delimitación de la UEU 2.6 “Pagoaga”, tal y como está delimitada en el P.G.O.U*
- *En los demás aspectos, desestimar el recurso de reposición, ratificándose en la necesidad de dar cumplimiento a los aspectos señalados por el arquitecto municipal en su informe.*

2. *Comunicar al promotor que para una nueva tramitación del Plan Especial de la U.E.U. 2.6 “Pagoaga”, deberá presentarse nuevo documento actualizado y modificado.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

5.- HEA 16 “Txalaka-Oialume”ko Plan Berezia: hasierako onarpena.

Alkateak hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Astigarragako Hiri Antolaketarako Plan Orokorreko “Txalaka-Oialume” HEA 16an ekipamendu publiko bat egokitzeko Plan Berezia hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Hogei eguneko epean dokumentua jendaurrean jartzea, GAOn eta lurraldeko irakurle gehien dituen prentsan iragarkia ezarriz.

5.- Plan Especial AIU 16 “Txalaka-Oialume”: aprobación inicial.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda y medio ambiente:

Primero.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación urbana para la implantación de un Equipamiento público en el área Txalaka-Araneder, hoy área A.I.U 16 “Txalaka-Oialume” del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

Segundo.- Someter el documento a exposición al público durante 20 días, publicándose el



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

acuerdo en el B.O.G y en el diario o diarios de mayor tirada en el territorio.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

6.- “Agui” 8.2 HJUko Birpartzelazio proiektua: behin betiko onarpena.

Alkateak hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengo.- “Agui” 8.2 HJUko birpartzelazio proiektua behin-betirako onartzea, proiektua jabetza erregistroan inskribatu aurretik Astigarragako udalari 1.196.733,32 €. ordaindu behar zaizkiolarik, (721.726,52 €, %15 lagapen izaeraz eta 475.006,80 €, dohatze zama).

Bigarrena.- Talleres Agui, S.A. enpresari hartutako erabakiaren berri ematea, eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.

6.- Proyecto de reparcelación UEU 8.2 “Agui”: aprobación definitiva.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda y medio ambiente:

Primero.- Aprobar definitivamente el Proyecto de Reparcelación de la U.E.U 8.2 “Agui”, condicionada a que con carácter previo a que se inscriba el proyecto en el Registro de la propiedad se abonará al Ayuntamiento de Astigarraga la cantidad de 1.196.733,32€ (721.726,52€ 15% de cesión y 475.006,80€ carga dotacional).

Segundo.- Notificar el acuerdo a Talleres Agui S.A. y publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa..

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

7.- “Agui” 8.2 HJUko Urbanizazio proiektua: hasierako onarpena.

Alkateak hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

1. “Agui” 8.2 HJUko urbanizazio proiektuari hasierako onarpen baldintzatua ematea, udal arkitektoaren 2017/04/05eko txosten teknikoaren baldintzak beteaz.

2. Hogei eguneko epean jendaurrean jartzea, GAOn erabakiaren iragarkia ezarriz.

7.- Proyecto de urbanización UEU 8.2 “Agui”: aprobación inicial.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda y medio ambiente:

1. Aprobar inicialmente el Proyecto de urbanización de la U.E.U. 8.2 “Agui”, condicionado al informe de fecha 05/04/2017 redactado por el arquitecto municipal.

2. Someter el Proyecto a exposición pública durante veinte días, publicándose el acuerdo en el B.O.G.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

8.- Arrobitxuloko harrobia egonkortzeko bigarren faseko obrak: kontratazio espedientea onartzea.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Bigarrena.- Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu administratibo eta teknikoak onartzea.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

9.- Kultura, euskara eta jaiak arloko dirulaguntzen oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Alkateak kultura eta euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeetako irizpenak aurkeztu ditu, eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- Kultura, euskara eta jaiak arloko 2017ko laguntzen oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren deialdi publikoa egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu dira.

10.- Lankidetzaren hitzarmena onartzea: Astigar.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- Astigar taldearekin lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.0700.481.01.334.12.2017 kontu-sailaren kargu 5.445,00 euroko diru-laguntza

8.- Obra segunda fase de la estabilización de la cantera de Arrobitxulo: aprobación del expediente de contratación.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar el expediente de contratación y dar inicial al procedimiento de adjudicación.

Segundo.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas y técnicas.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.

9.- Aprobación bases subvenciones área cultura, euskara y fiestas, y hacer la convocatoria pública.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, los dictámenes de la comisiones de cultura y de euskara, educación, juventud y fiestas, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar las bases de subvenciones área de cultura, euskara y fiestas para el año 2017.

Segundo.- Realizar la convocatoria pública de las ayudas económicas.

A continuación se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

10.- Aprobación convenio colaboración: Astigar.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con Astigar taldea.

Segundo.- Aprobar la subvención nominativa de 5.445,00 euros con cargo a la partida



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da. 1.0700.481.01.334.12.2017, realizándose el pago tal y como se recoge en el convenio.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **ahoz** onartu da.

A continuación se procede a la votación y **se aprueba por unanimidad.**

11.- Lankidetzaren hitzarmena onartzea: Aiztondo abesbatza.

Alkateak adierazi du berak ez duela parte hartuko gai honen eztabaidan eta bozketan, abesbatzako kide delako.

Jarraian, euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- Aiztondo abesbatzarekin taldearekin lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.0700.481.01.334.11.2017 kontu-sailaren kargu 14.365,00 euroko diru-laguntza izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **ahoz** onartu da.

11.- Aprobación convenio colaboración: Aiztondo abesbatza.

La Alcaldesa ha señalado que no va a tomar parte en el debate y votación de este tema, dado que es miembro del coro.

A continuación, se ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con Aiztondo abesbatza.

Segundo.- Aprobar la subvención nominativa de 14.365,00 euros con cargo a la partida 1.0700.481.01.334.11.2017, realizándose el pago tal y como se recoge en el convenio.

A continuación se procede a la votación y **se aprueba por unanimidad.**

12.- Lankidetzaren hitzarmena onartzea: Dobera.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- Dobera elkartearekin taldearekin lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.0600.481.04.335.00.2017 kontu-sailaren kargu 25.000,00 euroko diru-laguntza izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **ahoz** onartu da.

12.- Aprobación convenio colaboración: Dobera.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con Dobera elkartea.

Segundo.- Aprobar la subvención nominativa de 25.000,00 euros con cargo a la partida 1.0600.481.04.335.00.2017, realizándose el pago tal y como se recoge en el convenio.

A continuación se procede a la votación y **se aprueba por unanimidad.**



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

13.- Euskarako egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko 2017ko plana.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- *Buruntzaldeko Udalek euskarako egitasmoak elkarlanean garatzeko 2017 urterako plana eta horri dagokion komunikazio plana onarzea.*

Bigarrena.- *Astigarragako Udalak gehinez ere 20.000,00 euro gastatzea egitasmo horietarako.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

14.- Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: Musika Eskola.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- *Musika eskolarekin lankidetzeta-hitzarmena onartzea.*

Bigarrena.- *1.0600.481.01.326.00.2017 kontu-sailaren kargu 95.574,00 euroko diru-laguntza izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da.*

Alkateak adierazi du onartuko den diru-laguntza zenbateko handiagoa eskatu duela musika eskolak, baina aurrekontuan ez dagoenez zenbateko hori aurreikusia, dagoena onartuko zaiela eta gero beharrezkoa bada kreditu-aldaketa bat egingo dela.

Bestalde, musika eskolaren azken boladako egoeraren berri eman du, adierazi du bi alderdiek (juntakideek eta langileek) oso kezkatuta daudela, eta arazo larriena langileen nominak direla, ez baitaude behar bezala kalkulatu, eta egokitu beharrean daudela,

13.- Plan 2017 Buruntzaldea: desarrollo de proyecto en colaboración.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- *Aprobar el plan del 2017 para ejecutar los proyectos de euskara en común con los municipios de Buruntzaldea, así como el plan de comunicación del mismo.*

Segundo.- *El Ayuntamiento de Astigarraga gastará, como máximo, la cantidad de 20.000 euros para la ejecución de dichos proyectos.*

A continuación se procede a la votación y **se aprueba por unanimidad.**

14.- Aprobación convenio colaboración: Musika Eskola.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas; y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- *Aprobar el convenio de colaboración con Musika Eskola.*

Segundo.- *Aprobar la subvención nominativa de 95.574,00 euros con cargo a la partida 1.0600.481.01.326.00.2017, realizándose el pago tal y como se recoge en el convenio.*

La alcaldesa señala que la escuela de música ha solicitado una cantidad superior a la subvención que va a ser aprobada, pero que como dicho importe no está previsto en el presupuesto, se aprobará el existente, y en caso necesario luego se modificará el presupuesto.

Por otra parte, informa de la situación que atraviesan últimamente, señalando que ambas partes (los miembros de la junta y los trabajadores) están muy preocupados,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

horrek ekar dezakeen gainkostuarekin.

Gaineratu du greba deialdia egin dutela eta atzo gaueko ordu txikiak arte beraiekin bilera izan zuela egoera konpontzeko, udalari eskatu baitiote laguntza. Eta aurreratu du lehen urratsak eman direla datorren asterako greba-deialdia bertan behera uzteko.

Andoni zinegotziak egokitzat hartu du hitzarmena dagoen bezala sinatzea, bestela ezingo baitute dirulaguntza kobratu. Bestalde, adierazi du juntako kideekin eta langileekin hitz egin dutela, eta horiek adierazi dietela adostasun zirriborro batetara iritsi direla. Eta galdetu dio alkateari ba ote dakien kudeatzailea bere postuan jarraitzen duen.

Alkateak azaldu du bere postua utzi duela eta oraindik ez dela berririk izendatu, eta gaineratu du bere lana oraingoz juntakideen artean egiten dutela, gogoraraziz horiek bolondresak direla. Bukatzeko adierazi du udal gobernu taldearen asmoa izan dela herriko talde bati laguntzea, edozein taldearekin egiten den moduan.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu dira hitzarmena eta diru-laguntza ematea. Gainera, udalak ekarpen ekonomiko handiagoa egitea beharrezkoa izango litzatekeen kasuetarako, bertaratuek konpromiso hauek hartu dituzte: hitzarmena aldatzea eta laguntza osagarria onartzea, aurrez beharrezkoa den kreditu-aldaketa eginaz.

15.- Turismoa sustatzeko lankidetzahitzarmena: Behemendi.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

especialmente por las nóminas de los trabajadores, ya que al no haberse calculado debidamente deben ser adaptadas, con el sobrecoste que ello puede conllevar.

Añade que ya han realizado la convocatoria de huelga y que estuvieron reunidos la víspera hasta altas horas de la noche para solucionar la situación, ya que han solicitado ayuda municipal. Y adelanta que se han dado los primeros pasos para desconvocar la convocatoria de huelga de la siguiente semana.

El concejal Andoni ve conveniente firmar el convenio tal como está, pues de lo contrario no podrán cobrar la subvención. Por otra parte, señala que ya han hablado con los miembros de la junta y con los trabajadores, y que estos les han hecho saber que han llegado a un borrador de acuerdo. Y pregunta a la alcaldesa si sabe si la gestora continúa en su puesto.

La alcaldesa señala que ha dejado su puesto y que todavía no se ha nombrado un sustituto o sustituta, añadiendo que por el momento son los miembros de la junta los encargados de su labor, recordando que lo hacen voluntariamente. Para finalizar señala que el grupo de gobierno municipal ha intentado ayudar a un grupo de la localidad, de la misma manera que con cualquier otro grupo.

A continuación se procede a la votación y **se aprueba por unanimidad**; y los asistentes adoptan – para el supuesto de que sea necesario que el ayuntamiento realice una aportación económica mayor – el siguiente compromiso: modificar el convenio y aprobar una ayuda complementaria, previa modificación del presupuesto.

15.- Convenio colaboración para promover el turismo: Behemendi.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas; y propone la adopción del siguiente acuerdo:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehena.- Behemendi taldearekin turismoa sustatzeko lankidetzeta-hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.0100.422.01.421.11 2017 kontu-sailaren kargu 5.000,00 euroko diru-laguntza izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da.

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con Behemendi para promover el turismo.

Segundo.- Aprobar la subvención nominativa de 5.000,00 euros con cargo a la partida 1.0100.422.01.421.11 2017, realizándose el pago tal y como se recoge en el convenio.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** egin da 3 aldeko botoekin (2 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak) eta aurkako boto batekin (EHBildu).

A continuación se procede a la votación y **se aprueba** con 3 votos a favor (2 EAJ-PNV y 1 Euskal Sozialistak) y un voto en contra (EHBildu).

16.- Lankidetzeta-hitzarmena onartzea: AEK.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- AEK taldearekin lankidetzeta-hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.0600.481.02.335.00.2017 kontu-sailaren kargu 12.227,00 diru-laguntza izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da.

16.- Aprobación convenio colaboración: AEK.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas; y propone la adopción del siguiente acuerdo::

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración con AEK.

Segundo.- Aprobar la subvención nominativa de 12.227,00 euros con cargo a la partida 1.0600.481.02.335.00.2017, realizándose el pago tal y como se recoge en el convenio.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

A continuación se procede a la votación y **se aprueba por unanimidad**.

17.- Informazio, galdera eta eskariak

a.- Kultur etxe berriaren inguruan herriko taldeek eskatutako bilera.

Andoni zinegotziak galdetu du bilera egingo den eta nola, hau da, bakarka edo denekin batera.

Alkateak azaldu dio talde bakoitzarekin jarri direla harremanetan jakiteko batetik, bakoitzaren beharrak zeintzuk diren; eta bestetik, horiek nola zehaztu dituzten, hau da, talde barruan nola erabaki dituzten beharren zerrenda.

Azken galdera horrek Andoni eta alkatearen

17.- Información, ruegos y preguntas

a.- Reunión solicitada por los grupos de la localidad sobre la nueva casa de cultura.

El concejal Andoni pregunta si se va a hacer una reunión y cómo, esto es, individual o conjuntamente.

La alcaldesa le explica que se han puesto en contacto con cada grupo para saber, por un lado, cuáles son las necesidades de cada uno, y, por otra, cómo las han definido, esto es, cómo ha decidido cada grupo su lista de necesidades.

Esa última cuestión ha suscitado una discusión



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

zinegotziaren arteko eztabaida sortu du, lehendabizikoarentzat udalak ezin dituelako horrerakoak galdetu, ezin baita elkarteentz funtzionamenduan sartu; eta bigarrenarentzat, berriz, diagnostikoa egiteko ezinbestekoa delako. Gainera alkateak adierazi du taldeek udalaren diru-laguntza jasotzen dutela.

Bestalde, Andoni zinegotziak adierazi du ez dela normala taldeekin oraindik bilera egin ez izana, urtebete baino gehiago daramatenean gaiarekin eta gaineratu du bere taldeak udal osoko bilkuran lan-kronograma azaldu zuela. Alkateak erantzun dio oraindik ez dagoela kultur etxe berriaren proposamenik eta horri itxaroten daudela taldeekin hitz egiteko. Horrek zinegotzi eta alkatearen arteko eztabaida berri bat sortu du, hain zuzen, taldeen beharren zerrenda noizko egon behar duen ingurukoa. Lehendabizikoarentzat aurretik egin beharreko gauza bat den bitartean, bigarrenarentzat udalak edukiko duen espazioa zein den jakin ondoren egin behar baita, eta udal beharren arabera egokitu behar delako, eraikin berria etorkizunari begira ere eraiki behar baita.

Bukatzeko alkateak adierazi du taldeen beharrak zehaztuta daudenean, kultura batzordera eramango dela beharren zerrenda; eta adierazi du arraroa iruditzen zaiola taldeek kultur teknikariarekin (ez orain ez aurreko legealdian) harremanetan ez jarri izana gaia lantzeko.

b.- Oier Gomez Mielgo Gasteizko preso

Andoni zinegotziak adierazi du ez duela uletzen zergatik ez den udal osoko bilkuran sartu bere taldeak aurkeztutako adierazpen instituzionala. Gaineratu du berdin zitzaiela osoko bilkurara eraman beharrean bozeramaie batzordean onartu izana, baina hori ere ez dela egin.

entre el concejal Andoni y la alcaldesa, ya que en opinión del primero el ayuntamiento no puede pedir cosas de ese tipo, pues no puede inmiscuirse en la labor de las asociaciones; y para la segunda, en cambio, eso es algo que resulta imprescindible para establecer un diagnóstico. Además, la alcaldesa señala que los grupos reciben subvención municipal.

Por otra parte, el concejal Andoni señala que no le parece normal que todavía no se hayan reunido con los grupos pues llevan más de un año con el tema, añadiendo que su grupo explicó el cronograma en el pleno municipal. La alcaldesa le responde que todavía no existe ninguna propuesta sobre la nueva casa de cultura, y que por lo tanto una vez reciban las propuestas pasarán a hablar con los grupos. Ello ha motivado una nueva discusión entre el concejal y la alcaldesa, precisamente sobre el plazo de presentación de la lista de necesidades de los grupos. Mientras que en opinión del primero se trata de algo que debe realizarse previamente, la segunda opina que debe hacerse una vez se sepa con qué espacio contará el ayuntamiento, pues debe adaptarse a las necesidades municipales, considerando que el nuevo edificio debe construirse con vistas al futuro.

Para finalizar la alcaldesa señala que una vez se encuentren definidas las necesidades de los grupos, la lista de necesidades se trasladará a la comisión de cultura, indicando que le extraña que ni ahora ni en la anterior legislatura los grupos no se hayan puesto en contacto con la técnica de cultura para tratar el asunto.

b.- El preso de Gasteiz Oier Gomez Mielgo

El concejal Andoni señala que no sabe por qué no ha sido incluida en el orden del día la declaración institucional presentada por su grupo. Añade que no les hubiera importado que en vez de llevarse al pleno hubiera sido aprobada por la comisión de portavoces, pero que eso tampoco se ha hecho.

La alcaldesa le indica que la última semana no



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Alkateak adierazi dio hilabete honetan ez dela bozemaile batzorderik egin ez zegoelako presa zuen gairik, eta galdetu duenean gai honek hurrengo bilera arte ezin duen itxaron, Andoni zinegotziak komentatu dio sei hilabeteko bizi itzaropena duela; eta Aldundian ere bezperan onartu dutela aho batez adierazpen instituzionala.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta udal osoko bilkuran premiaz sartzeko proposamena egin du, aho batez onartu dena.

se ha convocado a la comisión de portavoces por no existir ningún tema urgente, y cuando ha preguntado si este tema no podría esperar hasta la siguiente reunión, el concejal Andoni le comenta que el preso tiene una esperanza de vida de seis meses, y que la víspera la Diputación aprobó la declaración institucional por unanimidad.

El concejal Mikel toma la palabra para proponer su inclusión urgente en el orden del día del pleno, lo que es aprobado por unanimidad.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko apirilaren 26an

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria